



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **IN-2. LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERA SAILKATUAK (HIRI LURZORUAN EZARRITAKOAK)**

### **Zer da / Zertarako da**

Udal lizentzia honek ahalmena ematen du eragozpenak sorrarazi ahal dituzten edo pertsonen edota haien ondasunei arriskuak eragin ahal dizkieten, eta, era berean, ingurumenari kalte egin ahal dioten 7/2012 Legearen II. Eranskinen A idatz-zatiko jarduerak ezartzeko, zabaltzeko edo eraberritzeko, apirilaren 23ko Legeak aldatutako Euskal Herriko Ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorrak 55. artikuluan jasotako zerrendari jarraiki:

- a) Erauzketa-jarduerak.
- b) Instalazio nuklearrak eta erradiaktiboak.
- c) 100 kW-etik gorako potentzia instalatua duten argindarra ekoizteko instalazioak.
- d) Industriak, oro har.
- e) Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak; bai eta motordun ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak eta antzeko lanak egiten dituzten tailerrak ere.
- f) Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m<sup>2</sup>-tik gorakoa bada.
- g) Biltegitzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak eta instalazioak, toxiko, arriskutsu edo sugarri gisa katalogatuta dauden produktu eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).
- h) Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta erregai likidoak edota gaseosoak banatzeko instalazioak edo antzeko instalazioak.
- i) Edozein motatako lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik gora badute.
- j) Hondakinak bildu, berreskuratu eta deuseztatzeko instalazioak.
- k) 500.000 m<sup>3</sup> baino gehiagoko lekua daukaten lur eta harkaitzen betelanak, urtebete baino gehiago iraungo badute; azpiegitura linealetarako obrei lotutakoak izan ezik.
- l) Hondakin-urak arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.
- m) Arrain-haztegiak.
- n) Abere-hiltegiak.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

ñ) Dantza-sala, dantzaleku, klub, diskoteka, disko-bar, karaoke, pub edo antzeko establezimenduak.

o) Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea.

- Lau ohmeko karga estandarrerako 50 wattetik gorako potentzia efikaza duen musika-ekipoa izatea.

p) 20 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiagoko abeltzaintzako ustiategiak eta etxeko eskortak, edo ustiategi baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikuluko a) idatz-zatian agertzen diren proportzioen arabera, edo horren ordeztarako den araudiaren arabera; txakur-zaindegiak (hazkuntza eta hezkuntza), 25 txakur baino gehiago hartzeko lekua badute; denak ere, baldin eta lurzoru ez urbanizagarrian edo industriarako hiri-lurzoruan badaude.

q) Etxeko abeltzaintza-jarduerak, alegia, 4 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiago dituzten instalazioak, eta txakur-zaindegiak, den-denak, bizitegirako hiri-lurzoruan baldin badaude.

r) Errauste-labeak.

s) Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 55. artikuluari jarraiki eta 7/2012 Legearekin bat etorritik, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak.

Lokalean obrak egin behar izanez gero, jarduera-lizentzia izapidetu beharko da obrak egiteko lizentzia eskatu aurretik.

Udalaren ikuskaritza eta kontrol araudiaz gain, udal zerbitzu teknikoek dokumentu teknikoak aztertu ondoren, Udalak jardueran behar bezala jarduteko bestelako neurri osagarriak ere betearaz ditzake.

Jarduera sailkatuetarako lizentzian agindutako neurri zuzentzaileak ezarrita daudenean eta instalazioak egokituta daudenean, jarduerari ekin ahal izateko, aurrekomunikazioaren araubidea bete beharko da (ikus OZ-3 tramitea).

**Aurretiazko komunikazioa aurkezteak ahalduz duen jardueran hasteko**, erantzule bakarrak direla jardueraren titularrak eta egiaztagiria eman duten teknikariak. Dena dela, horrek ez du salbuesten, jardueretan hasi ahal izateko, gaikuntza ematen duten administrazio tituluak eduki beharretik edo sektorean aplikatzekoak diren araudiek xedatzen dituzten aurretiko kontroletatik.

Udalak egiaztatuz gero datu, adierazpen edo dokumentu garrantzizkoren bat zehaztugabea edo faltsua dela, edo indarreko legeek eskatzen dituzten baldintzak ez direla betetzen, arauak xedaturiko espedienteak izapidetu ondoren, eskubidea erabiltzeko edo jardueran aritzeko debekua ezar lezake, gertaeren berri duen unetik beretik, izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboekin gain.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## Nork eska dezake

Jardueraren titularrak edo haren legezko ordezkariak.

## Aurkeztu beharreko agiriak eta jarraitu beharreko prozedura

**A.** Eskatera orria datu guztiak beteta. [Ikus JL inprimakia](#)

**B.-** Teknikari gaitu batek idatzi eta sinaturiko proiektu teknikoa, eta dagokion elkargoak bisatuta.

**3 ale aurkeztu** behar dira paperean eta kopia bat erantsi formatu elektronikoa (CD edo USB bidez), izapideak arintzeko.

Gutxienez honako hauek jaso beharko ditu proiektuak:

**B1. Memoria:** Jarduera eta berori garatzeko ezarritako neurriak azaltzen dituen memoria eta ingurumen memoria, honako hauek barne direla:

**1.1.** Lokalaren deskribapena, erabileren araberrako azalera osoak eta partzialak (erabilgarriak eta eraikiak), eta, horrez gain, lokalak zer kokapen duen eraikinaren barruan, zer sarbide dituen eta nola komunikatuta dagoen.

**1.2.** Fatxad(ar)en koloretako argazkia(k).

**1.3.** Jardueraren deskribapena (helburua eta jardueraren garapenak edo ekoizpen prozesuak berezko dituen ezaugarri teknikoak, makineria, erregaiak, instalazio higienikoak...) eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen eragina gutxitzeko ezarritako neurrien deskribapena.

**1.4.** Jardueraren funtzionamendurako beharrezkoa den makineriaren deskribapena eta ezaugarri teknikoak, eta, hala badagokio, lokala aireztatzeko eta/edo girotzeko aurreikusitako instalazioena.

**1.5.** Lokalaren edo jardueraren aurrekariak, BERRIA den edo lehendik dagoena BERRITU EDO LEGEZTATU egin den zehaztuz eta azalduz.

**1.6.** Aplikatu beharreko araudia betetzen dela egiaztatzen duen agiria (Arau Subsidiarioak, ordenantzak, zaratari buruzko araudia, irisgarritasuna, Eraikuntzako Kode Teknikoa, suteen aurkako babes neurriak, osasun arauak eta abar).

**1.7.** Araudi zehatzen pean dauden instalazioetan (instalazio elektrikoa, instalazio termikoa, gas instalazioa, igogailua eta abar), segurtasun industrialari buruzko araudietan ezarritako baimenak eta zerbitzuan jarri izanaren agiriak aurkeztu beharko dira.

### **B2. Planoak**

**2.1.** Jardueraren kokapena (gutxieneko eskala: 1:5000).



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**2.2.** Lokala edo eraikina zehazki non dagoen eta gainerako finkarekin erlazionatzen duen kokapen-planoa (gutxieneko eskala: 1:500).

**2.3.** Oinplano kotatuak: lokala osatzen duten maila guztien gaur egungo egoeraren plano kotatuak, honako hauek zehaztuz:

- Lokala osatzen duten bulego guztien banaketa eta erabilera, kotak eta azalerak zehaztuta (gutxieneko eskala: 1:50), bai eta irisgarritasunari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzen duen agiria ere.

- Instalazioak: aireztapena, girotzea, makineria, suteetatik babesteko neurriak, saneamendua, iturgintza, elektrizitatea (gutxieneko eskala: 1:50).

**2.4.** Sekzio kotatuak, espazioen garaierak eta erabilerak, hodiak, instalazioak, makineriak adieraziz (luzetara eta zeharka) (gutxieneko eskala: 1:50).

- Sarbidearen eta sestra koten bidez trazaturiko sekzioa.

- Fatxada, gaur egungo eta etorkizuneko egoeretan (gutxieneko eskala: 1:50).

- Jarduerarako behar diren beste xehetasun-plano batzuk.

**Proiektua udalean aurkeztuta, hau da jarraitu beharreko prozedura:**

1. Jendaurrean ikusgai jartzea GAO-n, eta bizilagunei pertsonalki jakinaraztea (Udalak).

2. Osasun-administrazioari bidaltzea, arauzko txosten loteslea egin dezan (Udalak).

3. Dagokion ingurumen-organoari bidaltzea, neurri zuzentzaileak ezarriko dituen txostena egin dezan (Udalak).

4. Jarduera lizentzia ebazteko, jakinarazteko eta likidatzeko administrazio-egintza (Udalak).

5. Udalak ezin izango du obra-lizentziarik eman jarduera-lizentzia eman arte.

6. Jarduera sailkatuetarako lizentzian agindutako neurri zuzentzaileak ezarrita daudenean eta instalazioak egokituta daudenean, jarduerari ekin ahal izateko, aurrekomunikazioaren araubidea jarraitu beharko da, eta honako agiriak aurkeztu beharko dira:

**C.** Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa eta sustatzailearen ardurapeko aitortpena jasotzen dituen inprimakia [Ikus AK inprimakia](#)

**D.** Teknikari gaitu batek egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena jarduera eta/edo instalazioak bat datozela aurkeztutako eraikitze-proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin eta betetzen dituztela ingurumen-arloko betekizun guztiak eta ezarri zaizkion neurri zuzentzaile guztiak. [Ikus ZT inprimakia](#)

**E.** Homologatutako enpresa batek eginiko saiakuntza akustikoa (Talka-saiakuntza, Airetikozarataren kontrako gutxieneko isolamendua Dnt,A...)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**F.** Instalakuntza elektrikoaren boletina, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

**G.** Barruko ur instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

**H.** Berokuntza, klimatizazio, aireztapen eta estrakzio instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzaren inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

**I.** IAE n alta.

**J.** Suteen aurkako babes sistemak mantentzeko kontratuaren kopia.

**k.** Instalatzeko eta funtzionatzeko osasun baimena (badagokio).

Komunikazioa eginda dagoela, komunikazioa egin den egunetik bertatik has daiteke gauzatzen jardura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administrazio Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera».

### **Non aurkeztu behar da**

**Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean** (San Bartolome 2, 20400 Ibarra), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi izanez gero, ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Hitz ordua ordutegi zabalagoan emateko aukera ematen da. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna.

Hitz ordua eskatzeko: 943671138 edo [ingurugiroa@ibarra.eus](mailto:ingurugiroa@ibarra.eus)

### **Zenbat kostatzen da**

Ikus ordenantza fiskalak, 57 eta 59. orrialdeak

### **Prozeduraren epea**

Legezko gehieneko epea: 6 hilabete eskaera egiten den egunetik